

BONLOC

LEKUINE

BULLETIN



HERRIKO

MUNICIPAL

ALDIZKARIA

ETE 2026

2026KO UDA



## EGUNKARIA

- Larunbata, uztailaren 4a  
Intxaurmendi kantuz
- Asteazkena, uztailaren 22a  
Gaueko merkatua
- Larunbata, abuztuaren 8a  
Behi Lasterketak
- Abuztuaren 15eko asteburua  
Herriko Bestak
- Asteazkena, abuztuaren 19a  
Gaueko merkatua

## AIPAGAIA

- Sarhitza p2
- Komunikazioak p3
- Animazioak p4
- San Josepe eskola p5
- Udaberria p6
- Info pratikoak p7

# Sarhitza



Eskuetan duzue legealdi berri hunen lehen herriko informazio buletina. Aldaketak aurkituko dituzue, batez ere forma aldetik, maketazio berri batekin, eta osoki elebiduna den buletina batekin. Hautu hau egiten dugu euskarak bizi publikoan toki bat ukan dezan.

Herriko kontseilua, Euskal Herriko Herri Elkargoa eta inguruan diren instituzio ezberdinak plantan jarririk, eta herriko aurrekonduaren bozka ondotik, orain momentua da legealdi berrirako finkatu ekintzen martxan jartzea.

Ondoko asteetan herriko etxeko kanpoko batzordeak finkatuko dira, gaika ; helburua da zuen parte hartzeari idekitzea.

Uda bezpera huntan, animazio kulturala programazio bat landu dugu. Bi gaueko merkatu, behi kurtsa bat eta kontzertu bat antolatuak izanen dira.

Herrian bizia sortu nahi dugu, herritarrek kurutzatzeko estakuruak sortu nahi ditugu, eta tokiko artisten ikusgarriak gozatu ditzazuen nahi dugu !

Azkenik, informazio buletina hunen ondoan, jakin herriko berriak sare sozialetan segitzen ahal dituzuela ere. Herriko kontseiluaren izenean, uda eder bat opa dizuegu !

# Komunikatu, trukatu & parte hartu

Hauteskunde kanpaina guzian adierazi dugu gobernantza eredu bat plantan ezarri nahi genuela, entzutean, trukaketan, komunikazioan eta Lekuindarren herriko biziaren parte-hartzean oinarritua. Lehen neurriak plantan jartzen ari dira:

- **Hautetsien permanentzia:**

Herriko hauteskundeen biharamunetik, hautetsien permanentzia mantendu dugu. Larunbat goiz guziz, Herriko Etxea idekia da 10:00etatik 12:00etara. Binaka, hautetsiak zuen eskura dira, zuen behar eta galde guziera erantzuteko.

- **Herriko etxeko kanpoko batzordeak:**

Uda honetatik goiti, herriko biziari lotu nahi duten Lekuindarrei idekiak izanen diren herriko etxeko kanpoko hainbat batzorde osatuko ditugu. Aste batzuen buruan, batzorde horietan parte hartzeko moldeak jakinaraziko ditugu.



- **Mezu elektronikoko bidezko banaketa zerrenda:**

Zerbitzu horri esker, herriko biziari buruzko informazioak zuzenean zuen posta elektronikoko kutxan jasotzen ahalko dituzue: gertakariak, obrak, eta abar. Herriko buletin honekin batera, zerbitzu hori aurkezten duen A4 orri bat banatu dugu. Zerbitzu horretaz baliatu nahi baduzue, erantzun-kupoa betetzea eta guri itzultzea galdegiten dizuegu (etxe bakoitzeko posta elektronikoko helbide bat baino gehiago eman daiteke).

Lekuineko Gazteria eta Zubia elkartearekin batean, herriko etxeak adin guztietarako animazioak eskaintzen dizkizue, uda huntan herriko plazan elgarrekin biltzeko parada emanez.

Txik txak txik txak....

Maiatzean hasita, pilota txapelketa arratsaldez segituko du herriko bestetan egingen diren 1., 2. eta 3. serietako finalak arte.

Zatozte gure pilotariak sustatzerat, Erramundeko terraza goxatuz.



Udaren goxoki hasteko, Zubia elkarteak **Intxaurmendi kantuz** antolatuko du uztailaren 4an, larunbatarekin.

Usaiako lehiaketa gastronomikoa arroltze moleta gaiaren inguruan izanen da aurten. Giroaren alaitzeko, Indianoak IV. musika taldea hor izanen dugu herriko plazan. Jatekoa aldiz Erramundean atxemanen duzue.

Lehiaketan izena emaitako eta arautegia ukaiteko. Kontaktua : Nathalie :07.50.37.89.71

Zuen saskietara ! Gaueko bi azoka antolatuko dira uztailaren 22an eta agorrilaren 19an, arratsaldeko 7etatik aitzina. Lekuko ekoizleei toki eder bat eginga izanen zaie. Uztailan Txitxirioak eta agorrilan Saltoka taldeek animatuko dituzte bi gau horiek. Talo salmenta lekuan bertan.



Ausartenentzat, aspaldiko partez behi lasterketak Lekuineko plazan izanen ditugu agorrilaren 8an, larunbatarekin, 18etan. Sartzea dohainik izanen da 14 urte arteko haurrentzat, eta 5 €tan adin hortik harat.. DEYRIS ganaderia izanen da gau horren kudeatzailea.. Taloak eta edariak tokian bertan.



Lekuineko Gazteriak pestetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte agorrilaren 15ean eta 16an.

- **08/15an** : pilota partidak eta zikiroa
- **08/16an** : animazioak Gaia elkartearekin eta pilota txapelketaren finalak

# Lekuinetik Dublinerat... in English !



2026ko maiatzaren 5etik 8ra, Lekuineko San Josepe eskolako Cptik CM2ra arteko ikasleek abentura berezia bizi izan dute Dublinoan, Erasmus+ programari eta Meriziar sareak antolatu duten partzuergoari esker.

Hizkuntza-egonaldi hori zazpi hilabeteko prestaketaren bururatzea izan da, ingelesaren eta Europaren inguruan. Ikasleek ingelesa egunero landu dute, Europar Batasunaren historia ezagutu dute, eta beren gazteendako album propioa ere argitaratu dute ingelesez, Europako United in Diversity leloaren inguruan.

Dublinoan, Samuel Beckett Nazioarteko Frantses Lizeoan harrera beroa egin diete. Han, Julia Donaldsonen The Gruffalo album ezagunaren inguruko jardueretan parte hartu dute ingelesez, eta ikasgelako uneak partekatu dituzte beren irlandar korrespontsalekin.

Baina bidaia hori giza abentura zoragarria ere izan da. Haur batzuentzat, lehen aldian hegazkinez bidaiatzen zutela. Ohiko erreferentzietatik urrun, autonomia irabazten ikasi dute, elkarrekin bizitzen, eta egiazko egoeretan ingelesez mintzatzera ausartzen: karrikan, jatetxean edo tranbian.

Egonaldiaren une azkarra: ikasleek Dublinoan Molly Malone kantatu dute irlandar arrain-saltzaile ospetsuaren estatuaren aitzinean, pasatzaileen txalo alai eta gogotsuen artean.

Emozioz, aurkikuntzaz eta ikasketaz betea, murgiltze hori luzaz geldituko da ikasleen oroimenean... eta haiekin joan diren helduenean ere bai.

# UDABERRIA DA!

**Egun ederren etorrerarekin, natura iratzartzen da, eta kanpoko terrazak ere bai!**  
**Urtaro berri hau elkarrekin ahalik eta hobekien bizitzeko, hona hemen hartu beharreko neurri batzuen oroigarri bat.**

- **Soropil-moztekoaren erabiltzea**

Oroitarazten dizuegu arrabotsa-eragozpenak sor ditzaketen tresnen erabiltzeak departamenduko osasun araudiak arautzen duela.

Horrela, arrabotsa eragin dezakeen brikolaje edo baratze-lan oro baimendua da:

-Lanegunetan, 8:30etik 12:00etara eta 14:30etik 19:30era,

-Larunbatetan, 9:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 19:00etara,

-Igande eta besta egunetan, 10:00etatik 12:00etara.

Ordutegi horiek errespetatzea eskatzen dizuegu, auzokoan lasaitasuna ez tratatzeko.



- **Eltxo tigreen itzulera**

Gure lurraldea kolonizatu dutenetik, intsektu horiek ez digute uzten kanpoko espazioez osoki gozaten, hain baitira oldarkorrak.

Ur kantitate arras ttipian ugaltzen dira: tapa batean, kanpoko haurren jostailuetan, loreontzien azpiko plateretan...

Larba-gune horiek kenduz, eltxo tigreen ugaritzea saihesten duzue, bai zuen etxean, bai zuen auzokoenean!

Beraz, jar ezazue harea loreontzien plateretan, gorde haurren jostailuak aterpean, eta ezar ezazue eltxo-sarea euri-ur biltegiaren inguruan edo euri-ur begiratokien gainean.

Keinu sinple horiei esker, uda kanpoan pasatzen ahalko duzue ziztadarik gabe!

- **Asiako liztorren itzulera.**

Egun ederren etorrerarekin, Asiako liztor kolonietako erregina sortzaileak



lurpetik ateratzen dira lehen habia egiteko. Ohantze horiek goratasun apalean egiten dituzte: teilatu-hegal baten azpian, kanpoko barbako baten azpian, hesi batean... eta tenis pilota baten edo eskubaloi baloi baten neurria izaten dute.

Une egokia da horiek desagerrarazteko, erregina sortzailea zuhaitzen gailurrera igo aitzin, uztail hastapenean, udazkenera arte iraunen duten ohantze erraldoiak egiteko.

Zuen etxean lehen ohantze baten presentzia ikusten baduzue, jar zaitezte harremanetan herriko etxeko idazkaritzarekin; hark profesional bat igorriko du ohantzea suntsitzera.



# Informazio praktikoak

**2025ean ondarkinen bilketa aldatzen da**  
Euskal Hirigune Elkargoak arra-antolatzen du ondarkinen bilketa bere eremuan, helburu bezala hartuz:

## HOBEBI BEREKI ETA GURE ETXKO ONDARKINEN SORTZEA MUGATU!

### Biltze 4 tokiak:

- Intxaurmendiko bidea
- Ezker paretan
- Aroztegiko bidea
- Zurrategiko bidea



## Heldu zaitez gurekin jokatzerara! 2026ko irailaren 5a, larunbata

Hazparneko Tenis Club-ak adin guztietan tenisa deskubritzera gonbidatzen zaituzte: Mini-tenisa (5-6 urte), Tenis eskola (7-12 urte), nerabe programa (13-17 urte), helduentzat txapelketak (16 urtetik goiti) eta osasunerako tenisa (35 urte goiti). 2026ko Irailaren 5ean, 15:00tik goiti Ezker paretan. Materiala lekuan bertan izango da eskuragarri.



Informazioa & harremana: 07 57 01 14 07



### Zabaltzeko testua

TXIK TXAK eskola-garraioko izen-emateak zabalik dira. 2026ko sartzarako, izen-ematea edo berritzea abuztuaren 2a baino lehen egin behar da. Bi konponbide proposa daitezke zuen haurraren ibilbidearen arabera:

- Eskola-linea: izen-ematea nahitaezkoa abuztuaren 2a baino lehen
- TXIK TXAK linea erregularrak: -28 urteko abonamendu klasikoa, izen-emate berezirik gabe

Ez dakizue zein konponbide dagokion zuen haurrari? Informazio guztia TXIK TXAK webguneko Eskola-garraioko atalean aurkituko duzue: [txiktxak.fr](http://txiktxak.fr) - Eskola-garraioko.



TXIK TXAK Eskola-garraioko taldea

**Zure udalerraren albiste guztien jarraipena egiteko, sare sozialen kontuetara harpidetzea edo gure webgunea kontsultatzea gomendatzen dizugu.**



[www.communedebonloc.fr](http://www.communedebonloc.fr)



[www.instagram.com/lekuineko\\_herriko\\_etxea](https://www.instagram.com/lekuineko_herriko_etxea)



[combonloc@wanadoo.fr](mailto:combonloc@wanadoo.fr)



[www.facebook.com/communede.bonloc](https://www.facebook.com/communede.bonloc)

Orrialde 7

## ANIMAZIOEN PROGRAMA



### Intxaurmendi kantuz

Usaiako lehiaketa gastronomikoa arrotze moleta gaiaren inguruan izanen da aurten. Musika Indianoak IV taldearekin.


**Herriko plazan**



### Gaueko merkatua

Tokiko ekoizlari ta ofiziale hor izanen dira. Txitxiroak taldeak animaturik. Taloak salgai lekuan berean. 19etatik goiti.

**Herriko plazan**



### Behi Lasterketak

Behi lasterketak Lekuineko plazan izanen ditugu aspaldiko partez. Ondotik kontzertua Kontrabanda taldearekin.

**Herriko plazan**



### Herriko Pestak

Lekuineko Gazteriak pestetarat gomitatzen zaituzte agorrilaren 15etik 18rat.

**Herriko plazan**



### Gaueko merkatua

Tokiko ekoizlari ta ofiziale hor izanen dira. Saltoka taldeak animaturik. Taloak salgai lekuan berean. 19etatik goiti

**Herriko plazan**

